

UDALEKU IREKIAK / 2022: OINARRIAK

2020an mankomunitateak udaleku irekiak eskaintzeko zerbitzua kontratatzeko prozedura egin zuen, eta zerbitzu hori Dindaia Fundazioari esleitu zitzaion. Plegu arautzailearen 6. artikulua kontratua 4 urtez luzatzea aurreikusten duenez, aurten ere fundazio horrekin kontratua egitea xedatu zuen lehendakariak, martxoaren 18ko 2/2022 ebazpenaren bitartez. Batzorde Erabakitzaileak oinarri hauek onartu ondoren, fundazioaren eta mankomunitatearen arteko kontratua sinatuko da.

Helburuak

Udaleku irekien helburu nagusia da aisialdi giroan haurren artean euskararen erabilera sustatzea. Halaber, udalekuetan honako balio hauek ere landu nahi dira:

- Hezkidetza
- Kultur aniztasuna
- Inklusibitatea

Adinak, datak eta tokiak

Adinak

Udalekuen eskaintza 2010-2018 urteen bitartean jaiotako haurrei egiten zaie; hurrek eskolatuak egon behar dute. Behar bereziak dituzten haurren kasuan, adin muga 15 urtekoa izanen da (2007-2018 bitartean jaiotakoak).

Datak

Uztailaren 4tik 29ra, biak barne (4 aste; asteka izen emateko aukerarekin). Lesakako kasuan uztailaren 11n hasi eta abuztuaren 26an bukatuko dira (7 aste; asteka izen emateko aukerarekin); Lesakan eskainiko diren 3 aste horien kudeaketa eta gastuen ordainketa udalaren gain geldituko dira.

Ordutegia

Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzin udalekuak 10:00-13:00 bitartean izanen dira. Lesakako kasuan ordutegia 09:00-13:00 bitartekoa izanen da.

Tokiak

Arantza: Arantzako Herri Eskola
Bera: Ricardo Baroja I.P. / Labiaga Ikastola
Etxalar: Landagain I.P.
Igantzi: Igantziko I.P.
Lesaka: Irain I.P.

Behar bereziak dituzten haurren parte hartzea

Inklusibitatea udalekuetako balio bat izaki, behar bereziak dituzten eta begirale bat behar duten haurrentzako 3 plaza gordeko dira. Haur horiek begirale bana behar dutela erabakitzeke orduan osasun eta hezkuntza arloko profesionalak aurkeztutako txostenak hartuko dira aintzat. Adinari dagokionez, 15 urte bitartekoek parte hartzen ahal dute (2007-2018 bitartean jaiotakoek). Izen emana ahala beteko dira plazak.

Eskainiko diren plaza eta begirale kopuruak

Aurrekontuaren arabera gehienez ere 20 begirale kontratatzen ahal dira. Covid-19a dela eta bertzelako neurriak ezartzen ez diren bitartean, egungo ratioak hartuko dira kontuan eskaintzen ahal diren plaza eta talde kopurua finkatzeko; osasun neurriek hala eskatzen badute, eskaintza egokitu egingen da.

Beraz, hasierako eskaintza hauze litzateke:

- Ratioak: Haur Hezkuntzako taldeetan gehienez ere 8 haur; Lehen Hezkuntzako taldeetan gehienez ere 10 haur. Talde bakoitzak begirale bat izanen du.
- Eskainiko diren talde kopuruak honakoak dira:
 - Beran zortzi talde:
 - 3 HHkoak (bakoitzean 8 haur x 3 talde = 24 haur)
 - 5 LHkoak (bakoitzean 10 haur x 5 talde = 50 haur).
 - Lesakan sei talde:
 - 3 HHkoak (bakoitzean 8 haur x 3 talde = 24 haur)
 - 3 LHkoak (bakoitzean 10 haur x 3 talde = 30 haur).
 - Arantza, Igantzi eta Etxalarren bina talde:
 - 1 HHkoa (bakoitzean 8 haur x 3 herri = 24 haur)
 - 1 LHkoa (bakoitzean 10 haur x 3 herri = 30 haur).
- Modu horretan 21 talde lirateke, eta guzira 192 plaza.
- Behar bereziak dituzten haurrentzako 3 plaza gordeko direnez, izen emate horien arabera honela moldatuko dira taldeak:
 - Behar bereziak dituen haur batek izen emanez gero, Beran 7 talde eskainiko dira.
 - Behar bereziak dituen bertze haur batek izen emanez gero, Lesakan 5 talde eskainiko dira.
 - Behar bereziak dituen hirugarren haur batek izen emanez gero, Beran 6 talde eskainiko dira.

Halere, eskaintza hori malgua izanen da eta izen emateen arabera moldatuko da, betiere aurrekontuaren arabera kontratatu daitekeen gehieneko begirale kopurua kontuan hartuta.

Herri bakoitzean udalekuak antolatzeke gutienez 15 haurrek izen ematea beharrezkoa da.

Izen ematea eta parte hartzeko baldintzak

Izen ematea

Izen emateko bide bakarra online izanen da. Formulario bat sortuko da horretarako, datu guziak eskatzeaz gainera baimenak, osasun oharrak eta antzekoak jasoko dituen.

Izen emateko epea zabalik egonen da maiatzaren 23tik ekainaren 3ra, biak barne.

Izen ematea asteka egin daiteke. Udalekuetan onartuak izan diren haurren asistentzia kontrolatuko da. Astebetaz udalekuetara justifikatu gabe joaten ez diren haurrek plaza galduko dute eta erreserban daudenei parte hartzeko aukera emanen zaie. Plaza galtzen duten familiek ez dute dirua berreskuratzeko aukerarik izanen.

Plaza kopurua mugatua da. Izen eman ahala onartuko dira parte hartzaileak, eskaintako plazak bukatu arte.

Izen ematea ez da ontzat emanen haurraren osasun txartela ez badago mankomunitatearen esku ekainaren 10a baino lehen. Modu berean, matrikula ordaintzeko epea ekainaren 10era artekoa izanen da; egun horretarako ordainketa ez badago egina, izen emateak balioa galduko du.

Dirua itzultzea

Behin izena emanda, udalekuetan bajak izanez gero, ordaindutako diruaren itzulketak modu honetan egingen dira:

- Udalekuak hasi aitzinetik baja justifikatzen bada (eritasuna edo azken orduan sortutako arazo larriren bat, agiri bidez justifikatuta), matrikularen % 100 itzuliko da.
- Udalekuak hasi ondotik baja justifikatzen bada (eritasuna edo azken orduan sortutako arazo larriren bat, agiri bidez justifikatuta), matrikularen zati proportzionala itzuliko da (izena emanda dagoen epean falta diren egunei dagokiena).
- Udalekuak hasi aitzinetik baja emanez gero justifikaziorik gabe, matrikularen % 50 itzuliko da.
- Udalekuak hasi ondotik baja emanez gero ez da dirurik itzuliko.

Edozein kasutan, matrikularen dirua itzuli behar bada, bankuko gastuak beti familiaren gain izanen dira.

Parte hartzeko baldintzak

Partaideek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Bortzirietako udalerriren batean erroldatuak egotea edota bertako ikastetxeetako ikasleak izatea.
- Udalekuak euskaraz direnez, parte hartzaileek D edo B ereduan ikasi behar dute.

Mankomunitateak baldintza horiek egiaztatzeko behar diren agiriak eskatuko ditu, udal eta ikastetxe bakoitzean.

Udalekuen berri ematea

Udalekuen berri emateko bide hauek aurreikusten dira:

- Webgunea eta sare sozialak. Mankomunitateak erabiliko dituen ereduak udalei ere bidaliko dizkie, haiek ere zabal dezaten.
- Euskarri digitala oinarrizko informazioarekin eta izen emateko estekarekin.
- Komunikabideak.
- Familientzako eskutitza, ikastetxeen bitartez zabaltzeko.

Euskarri guzietan izen emateko lotura erantsiko da, baita udalekuen baldintzak zehaztuko dituen dokumentua ere. Ez da aurreikusten papereko euskarririk.

Matrikulen prezioak

Proposatzen diren prezioak 2020ko berak dira (udalekuetako ordu bakoitzeko 1,5 euro):

- Arantza, Bera, Etxalar eta Igantziko kasuan (asteen 15 ordu):

	Aste 1	2 aste	3 aste	4 aste
Ume 1	22,50 €	45,00 €	67,50 €	90,00 €
2 anai-arreba (-%15)	38,25 €	76,50 €	114,75 €	153,00 €
3+ anai-arreba (-%30)	47,25 €	94,50 €	141,75 €	189,00 €

- Lesakako kasuan (asteen 20 ordu):

	Aste 1	2 aste	3 aste	4 aste	5 aste	6 aste	7 aste
Ume 1	30 €	60 €	90 €	120 €	150 €	180 €	210 €
2 anai-arreba(-%15)	51 €	102 €	153 €	204 €	255 €	306 €	357 €
3+ anai-arreba (-%30)	63 €	126 €	189 €	252 €	315 €	378 €	441 €

Behar sozioekonomiko larriak dituzten familientzat, udalekuetan izen emateko baldintzak betetzen badituzte, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak onartutako irizpideak erabiliko dira, eta bertako teknikariei eskatuko zaie balorazioa egiteko. Baldintzak hauek dira:

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak ezarritako irizpideen arabera onura horiek jasotzeko baldintzak Askotariko Eraginetarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) arabera izanen dira. Baldintzak betetzen dituztenek ezarritako prezioaren %50 ordaindu beharko dute. Alegia, indarrean dagoen IPREM adierazlea oinarri hartuta:

Kide kopurua	Ondoriozko zenbatekoa (sarrerak-kenkariak)
2 kide	≤2 aldiz IPREM
3 kide	≤2,2 aldiz IPREM
4 kide	≤2,4 aldiz IPREM
5 kide	≤2,6 aldiz IPREM
6 kide	≤2,8 aldiz IPREM
7 kide	≤3 aldiz IPREM
8 kide	≤3,2 aldiz IPREM

Horrez gain, bizitoki kontzeptuan, kontutan hartuko da ordaintzen duten mailegua edo alokairua, gehienez ere 400 €.

Salbuespenak: Gizarte zerbitzuen programetako erabiltzaileak diren familia unitateetan baremazio ekonomikotik kanpo gelditzen badira ere, teknikariek familia egoera aztertu ostean aldeko txostena egiteko gaitasuna izanen dute, programen esku-hartzerako onuragarria ikusten dutenean.

Udal bakoitzaren egitekoa

Mankomunitatea udalekuen antolaketaz eta kudeaketaz arduratuko bada ere, udal bakoitzaren esku gelditzen da erabiliko diren espazioak egokitzea eta garbitzea. Mankomunitateak eskaera eginen dio udal bakoitzari epe laburrean; eskaera orokorra izanen da, oraingoz eta izen emateak bukatu arte ezin izanen baita erabiliko diren espazioen zerrenda zehatza egin.

Finantzazioa (behin-behineko datuak)

Diru sarrerak:

- Aurten ere Caixabank erakundearen proiektua aurkeztu genuen urte hasieran, baina ez dugu inolako erantzunik jaso. Azkenean udalekuak egitea erabakitzen bada, jarriko gara berriz haiekin harremanetan. Iaz dirulaguntza murriztu zuten, eta 4.000,00 euro eman zituzten.
- Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 2020ko abenduaren 9an egindako bilkuran erabakitakoa kontuan hartuz, udalekuek sortzen duten defizitaren erdiari aurre eginen dio, gehienez ere 6.000,00 euro aportatuz.
- 213 hurrek parte hartuta, familiek ordaindutako matrikuletatik 16.797,75 euro sartu ziren 2021ean.

Gastua:

- 2020an egindako esleipenaren prezioa 30.919,49 eurokoa da. Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileak 2022rako onartutako aurrekontuan ere kantitate hori jasotzen da udalekuak antolatzeko. Beraz, hori izanen da aurtengo udalekuen gastuaren gehieneko kopurua; zenbatekoa jaits daiteke, eskainitako

plazak ez badira betetzen eta haur talde gutxiago sortzen bada (begirale gutxiago beharko lirateke).

- Arestiko atal batean eskainiko diren plaza eta begirale kopurua zehaztu diren moduan, Dindaia Fundazioak egin duen aurrekontua 29.992,76 eurokoa da.
- Gastu horretatik aparte daude udalekuen berri emateko egin behar diren euskarrien gastuak, baita begiraleen formakuntza ere. Mankomunitatearen aurrekontuan ere hala aurreikusia dago.

Osasun neurriak

Oraingoz ezin da jakin zein izanen diren udako jardueretarako ezarriko diren osasun neurriak. Aurreikuspen hau iazko baldintzak kontuan hartuta prestatu da.

Udalekuen berri ematerakoan ongi zehaztuko da jarduera uneoro egokituko dela osasun agintarizetatik ematen diren neurrien arabera.

Datuen babesa

Erabiltzaileen datuak horiek babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira. Lizitaziorako plegu arautzailean honela zehaztua dago datuen babesari dagokiona:

Bortzirieta Euskara Mankomunitateak erakunde esleipendunaren esku utziko ditu honako datu fitxategiak:

- Udalekuetako partaideei buruzko datuak.
- Udalekuetako partaideen osasun txartelen fotokopiak.
- Udalekuetan parte hartuko duten behar bereziak dituzten haurrei buruzko txostenak.
- Udalekuetako partaideen guraso edo tutoreei buruzko datuak.

Erakunde esleipendunak udalekuen antolaketarako eta garapenerako bakar-bakarrik erabiliko ditu datu horiek, eta udalekuak bukatutakoan guziak deuseztatu egingen ditu, edo mankomunitateari itzuliko dizkio. Datu horiek aipatutako moduan eta errandako helburuekin tratatu ezean, erantzule bakarra erakunde esleipenduna izanen da, eta hark erantzun beharko die bai hirugarren pertsoneri eta entitateei, bai mankomunitateari, sortzen ahal diren kalte edo galerengatik.

Mankomunitatearen datu kudeaketari dagokionez, honakoa zehaztu behar da, batez ere izen emateekin eta gurasoekiko harremanarekin lotuta:

- Izen ematea online izanen da, modu horretan gurasoek beren aukera zuzenean egiteko aukera dutelako. Behar duenari informazioa telefonoz emanen zaio, bertze bideetatik emateaz gainera.
- Udalekuek irauten duten bitartean mankomunitatearen eta gurasoen arteko komunikazioak idatziz izatea sustatuko da (e-postaz, whatsapppe edo SMS bidez).
- Mankomunitateak udalekuetako partaideei buruzko datuak (osasun txartelak eta behar diren kasuetan haurrei buruzko osasun txostenak) bakarrik udalekuak

kudeatuko dituen enpresari emanen dizkio. Baldintza pleguan nahiz kontratuan zehaztua egonen da enpresak datu horiek nola eta zertarako erabiliko dituen.

Arantzan, 2022ko apirila
Euskara teknikaria
Patri Arburua Etxeberria